

EUSKAL NAZIONALISMOAREN BERRERAIKUNTZAZ

***Ander Iturriotz Lauzirika
EHUko Soziologia Irakaslea***

Nazionalismo estatalak, Europari begira bezala Estatuko hegemoniak eraiki beharragatik, indartzen ari diren bitartean, Euskal Nazionalismoa estankaturik dago. 1993ko ekainaren 6an burutu ziren Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeetan isladatu zen, azken aldiz, egoera hau. Zatiketa larria eta, gehienetan, epe laburrera diseinatzen diren estrategia nahasgarriak izango lirateke Euskal Nazionalismoaren akatsik nagusienak, luzera kapital sinboliko nazionalista ahitzera eraman baitezakete. Erronka bikoitza du, bada, Euskal Nazionalismoak, alde batetik, Estatu boteretsuagoen indar sinbolikoari egin beharko baitio aurre eta, bestetik lehenbailehen lortu bere barne sendoztapena.

While state nationalisms are getting stronger facing Europe and the hegemony of very state, the Basque Nationalism seems blocked. This blockage was shown for the first time in the general elections for the Spanish Parliament held on the 6th. of June 1993. The most important deficiencies shown by the Basque Nationalism are the divisions and the confusing strategies designed in the short term, in the majority of the cases, and which can lead to the erosion of the own symbolic nationalist capital. Therefore, the Basque Nationalism has got a double challenge: on one hand, it must face the symbolic strength of the states and, on the other hand, it must attain its inner strengthening as soon as possible.

Euskal nazionalismoaren berreraikuntzaz¹

Artikulu honen oinarrian 1993ko ekainaren 6an burutu diren Espainiako Legebiltzarrerako Hauteskunde nagusiak daude, euskal talde nazionalistek hauteskunde horietan izan dituzten emaitzak aztertu beharrekoak gertatu baitira Euskal Herriarentzat proiektu nazional bat daukaten gizabanako eta taldeentzat. Etorkizunari buruz argiren bat egin nahi bada, behintzat.

Euskal nazionalismoak, zenbakitan esatearren, 80.000 boto baino gehiago galdu ditu azken hauteskunde hauetan.

Gainera, galera honen neurria areagotu egiten da, boto espainolistak nabariro gora egin duela baieztatzen denean. Euskal Herriarentzat proiektu estatualista duten alderdiek 1991n baino 300.000 boto gehiago berenganatu dituzte hauteskunde hauetan Hego Euskadin.

Ez al gaude komunitate nazionalista lehenbailehen eta hortz-haginekin heldu beharreko auzi baten aurrean? Nor ez da erre sute txiki honetan? Noiz arte ibiliko gara, nazionalismoaren osasun politikoa begi zorrotzez aztertu gabe, gerotik gerora doan bide nekagarri horretan?

Gertakari elektoral hau esplikatuko zuen lehen hipotesi batean, esan daiteke, Estatu mailan agertu den bipolarizazio-joera joera sendoak kalte egin diola konparatiboki neurri

txikiagoa duen euskal nazionalismoari, besteak beste, bultza egin duelako abstentzio espainola, adierazpen publikoa exigitu diolako, boto-emaile nazionalistak motibazio txikiagoa erakutsi duen une honetan, hain zuzen ere.

Bipolarizazio honek, bestalde, Estatuaren inguruko eztabaidari garrantzia handia eman dion bitartean, ahuldu egin du nazionalismoaren itzala. Bipolarizazioak berez beharko zukeen espazio publikoa lapurtu egin dio nazionalismoari, komunikabideetan bezala hautesleen gogoan.

Gertakizun hau ez da, ordea, koiuntura hutsekoa. Badirudi, orain eman diren zenbait ezaugarri estruktura-mailakoak direla. 1977an eta 1982an ere agertu baitzen hautesle espainolista hau, **Txema Monterok** (Hika, uztaila) ongi asko esplikatzen duenez, hautesleak megajoera politiko handiak aurrikusi zituenean eremu politikoan, erabaki handiak hartu beharra iragarri zuenean. Eta bestetan ere ager daiteke hautesle-kopuru espainolista hori, Espainiako interesa Euskal Herriari aurrez aurre jar lekiokoen guztietan, seguruenik.

Ekainaren 6ko hauteskunde hauek, bestalde, abagadune egokia eskaintzen dute, euskal nazionalismoak dituen barne-arazoak aztertzeke. Ikertu behar da aukera politiko honen hazkuntza zerk eragozten duen eta zergatik nazionalismoak, aspaldion, ezin izan duen gora egin neurri batetik gora zergatik.

1. Hemen garatzen diren ideietarik batzuen zirriborroa Egunkarian (93-VI-8 eta 93-VI-11) argitaratu ziren iritzi-lankidetzeta bitan eman ziren lehenago. Haien badaezpadakotasuna egokitu eta zuzendu ondoren, euskal nazionalismoaren berreraikuntzaz egiten da gogoeta artikulu honetan.

Lehen hurbilpen batean, nazionalismoari disfuntzional gertatzen zaizkion arrazoen artean, gehiegizko zatiketa, estrategia nahasia eta desbideragarria, edo norabide-desadostasuna, aipa daitezke.

Beharrezkoa ikusten da, beraz, disfuntzionaltasun hauei aurre egin ahal izateko, euskal nazionalismoaren berreraikuntza sinbolikoa eta birmoldaketa estrategikoa. Ez orain artekoak, kontraesanak kontraesan, batere baliorik izan ez duelako, baizik eta, etorkizunari begira, jomuga eta adore berriak bilatu behar direlako, han eta hemen.

Baina berreraikuntzarenak badu, zentzu pragmatiko honez kanpo beste adiera bat gure proposamenean. Ondoren garatuko dugun berreraikuntzaren kontzeptua **Habermas**² pentsalariaren *La reconstrucción del materialismo histórico* liburutik hartu da, eta geureratua edo doitua aurkeztuko da artikuluan.

Marxismoak, materialismo historikoak, gabezia batzuk ditu, **Habermasen** ustez, zahar gelditu da, hitz batean, zientzia sozialaren aurkikuntza batzuk aintzat hartu ez dituelako. Berritu eta osatu egin behar da, beraz; besteak beste, Interakzionismo Sinbolikoaren, Ikasketaren Teoriaren eta Funtzionalismoaren ekarpenetako batzuk bereganatu behar ditu eta materialismoaren oinarrian txertatu.

Gure proposamenean, ordea, berreraikuntza kontzeptuari eman nahi

izan diogun adiera ez litzateke zaharkiturik gelditu den planteiamendu bat jakintza-multzo batekin osatzera eta berriztatzerara letorkeena. Nazionalismoaren kontzeptua ez baita zaharkitu, ezin baita zahar geratu, munduan herririk eta herri izaten jarraitzeko gogorik dagoen bitartean, behinik behin. Nazionalismoaren berreraikuntzak ezin dio begiratu, agian ezingo dio begiratu, bere oinarrian, nazioari buruzko inolako ekarpen teoriko berriri.

Aitzitik, gure proposamenak tradizio filosofiko eta politiko zaharrenari begiratu nahi dio gertuagotik, hots, Ohituraren Filosofia dei deza-kegunari. **Alexis de Tocquevilleren**³ hitzak erabiliz, nazio baten funts bezala sineste, hizkuntza, ohitura eta bizilegeen berdinantzekotasuna jarri behar baita, giza bizitzaren elementu amankomun hauek osatzen baitute gizakiaren bihotza inoiz uzten ez duen Aberri Sena. Eta, jakina, elementu objektibo hauekin ezkondu eta hezur-mamiturik jarraitzeko gogo bizia.

Euskal nazionalismoa, pentsamolde honen hariari jarraiki, berreraikitzen hastea proposatzen bada, tradizio hau ahaztuxea eduki dugulako da, eta zientzia sozialaren korronte honek ezin hobeki erakusten digulako nazioa ulertzen, nazioa sentitzen eta bizipen bilakatzen, hain zuzen ere.

Neurri batean, proposamen honek aurrez aurrez egiten du topo euskal nazionalismoaren sektorerik dinamikoena den ezker abertzalearen

2. Habermas, J.: *La reconstrucción del materialismo histórico*, Taurus Humanidades, Madril, 1992.

3. Tocqueville, A. de: *La democracia en América*, Alianza Ed., Madril, 1989, 105 or.

gidaritzea izan den ikuspegi marxistarekin. Eta, batez ere, giza soziologia era lar egiturazkoan ulertu nahi duen marxismo-molde batekin.

Testuinguru orokor honetan, nazionalismoaren topikotasuna bindikatu nahi dugu, neurri batean, nazioa gauza topikoa baita, gizalegeak oro topikoak diren bezala, eta, ondorioz, hala beharko du izan nazionalismoari buruzko hausnarketak ere.

Kontzeptu bat, definizioz, gehiegiz ezaguna eta asimilatua denean bilakatzen da topiko, gai edo gune amankomun. Ezkutatu eta ixildu egiten da orduan iritzi publikoaren ageriko eztabaidatik. Baina, beti ere, giza interesa eta garrantzia galdu gabe. Esan nahi baita, topiko hori une paradigmaticoetan sortuko dela berriro ere indar handiz.

Espainolentzat zein frantsesentzat, adibidez, topiko ia gogaigarria da nazioarena. Baina honek ez du esan nahi Puerto Rico hispanoan gaztelaniari ofizialtasuna ukatu nahi izan zaionean edo Québec frantsesduneari aldarrikapen sezesionistak egin direnean Espainian zein Frantzian sentipen pan-nazionalista loratu ez denik beren interes kultural eta politikoen defentsan.

Gertatzen da, baina, euskal nazionalismoaren kasuan, eztabaida nahikorik gabe ari dela topiko bilakatzen sektore batentzat artean nahikotasunez sedimentatu gabe dagoen nazioaren kontzeptua. Eta topikotasun gogaitu honen izenean argudio errazegi eta azaleko asko ari da erabiltzen, aspaldiko partez, euskal nazionalismoaren aurka.

Oso modernoa eta progresista baita neke pertsonalean eta zabarkeria intelektualean oinarritzen den nazionalismoaren errefusamen eta ukamen oro. Are gehiago, modaren araberrako jarrera bilakatu baita egun buruarinkeria intelektual honetatik nazio ahulari erasotzea, nazio gailenduaren babespean.

Itzul gaitezen, bada, topiko sendoenetara, berreskura ditzagun giza bizipen sakonenak topiko ahul, arin eta azaleko hauek saihesteko. Itzul gaitezen betiko hitz zaharretara. Jar ditzagun mahai gainean gure barnean sustraiturik dauzkagun betiko gogoeta xamurrak. Etxea, harria, basoa, hizkuntza..., zeru-lurrak oro. Sasi-letratu horiek entzungor egingo badigute ere, guk geuk ondoan behar baititugu topiko horiek egunerokotasun nazionalak sortzen dizkigun kontraesan eta zalantzak irakurri eta ulertzeko.

Begibistan denez, kezka asko ari zaizkigu agertzen gogoetaren aitzin honetan, eta kezka guzti hauek bultzaturik hartu dugu, gure apaltasunean, ideia hauek luzatzeko ausardia. Zuhurtzia eraman nahi izan dugu bidelagun. Sasi-aholku teorikoak eta gorenkeria hutsalak saihestu nahi izan ditugu. Baina, aldeztu aurretik adierazi beharrean gaude, ez dakigu inplikatu beharrak, bihotza urratu beharrak, ez ote digun halako akatsen batera bultzatu maiz.

Norberaren muga, huts egite eta nahikerien gainetik, balioko ahal du hausnarketa honek eztabaida pizteko eta gure nazioaren bide estuari sendoa lotzeko.

Bipolarizazioa nazionalismoaren kaltetan

Gauza jakina da Estatu mailako hauteskundeak ez direla oso esparru positiboa, ez nazionalistentzat, uler bedi (beti gogoratu behar baita espainola eta frantsesa ere nazionalismoak direla) nazionalismo estatalaren aurrean subiranotasunik eta mekanismo politiko nahikorik ez duten herrietako nazionalistentzat, ezta talde txikien igurikizunentzat ere. Eta, gurean, euskal nazionalismoaren pisu demografikoa eta indar karismatikoa ez dira oso handiak.

Beraz, hasteko, hauteskunde hauetan euskal nazionalismoak lortu dituen emaitza kaxkarrak ingurune horretan epaitu behar dira, duten neurri erlatiboan hartuz.

Aitzaki errazegitan erortzeko balio ezin dezakeen ohar metodologiko honez kanpo, 1993ko ekainaren 6an burutu berri diren Estatu Espainiarreko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan zerbait nabaria eman bada bipolarizazio-joera indartsua izan da Estatuko alderdi nagusi bien alderako. Eta, esan bezala, ez-ohizko prozedura honek kalte izugarria egin dio nazionalismoari.

Bipolarizazio honek esplikatu lezake, neurri batean, geroago azalduko ditugun beste barne-arrazoi batzuekin batera, hauteskunde hauetan boto nazionalista zertxobait beherago kokatu izana bozketaren beraren izakerari goz lekizkiokeen emaitzetatik.

Burutu berri diren hauteskunde hauetan inoiz baino zalantzagarriagoa zen Estatu Espainoleko gobernuak

izan zezakeen osaketa. Ez zegoen ezer "idatzia", eta aurrekanpainan zein kanpainan bertan egin diren inkesta ugariak ez dute argirik egin, batere, guztiek oreka eta parekotasuna iragarri baitute hautagaien artean. PSOE kinka larrian zebilen, irudiz, nekatuta eta izandako oker nabariak ordaindu ezinik; PP, berriz, behingoz ageri zen gobernurako aukera serio bezala, bere iragan iluna gailentzeko eta bere mezua berriztatzeko egin ahaleginen ondorioz.

Aldarte honetan, normala dirudi Estatuko iritzi publikoa bi aurkari nagusi hauen arteko lehia bizian baitaratzea, eta, halaber, logika politiko berberaren menpe jokatzeko duen Euskal Herriko hautesle-kopuru bat.

Botoak pragmatikoa behar zuen izan, batarentzat ala bestearentzat, ez zegoen lekurik, balizko erdibide batean, ez nazionalismoentzat ezta gainerako aukerentzat ere. Edo hala sinestarazi diote hauteslegoari, bestetan nazionalista bozkatu duenari barne.

Laburbilduz, hauteskunde-kanpainaren klima dei daitekeena bipolarizazio indartsu baten alde ezarri zen ekainaren 6an. Eta klima politiko hartan ez zen geratzen zirrikitu bakar bat ere nazionalismoarentzat, **Aznarrek** eta **Gonzalezek** luzatzen zuten itzala oso trinko, politikoki oso itogarri, bilakatu baitzen gainerako aukera guztientzat.

Gainera, nazionalismoarentzat lekurik ez bazegoen agertoki politikoan eta iruditeria publikoan, are gutxiago komunikabideek behin eta berriro aireratuko zituzten talde nagusi bien

programa eta eztabaidarako oinarri edo erreferenteetan.

Autonomiaren kontzeptu ahulak ez zuen izan garrantzia nahikorik "paperetan" ateratzeko. Autonomiaren kontzeptu ahularena bigarren edo hirugarren mailako gaia izan zen hauteskunde-kanpaina osoan zehar.

Gogoratu, bestela, zein leku egin zioten talde politiko entzutetsuenek autonomiarekin harremandutako kontzeptuei beren programa eta eztabaidetan. Errealitatea bien arteko aukera izan bazen, bi horiek bat etorri ziren autonomien errealitatea izkututzerakoan. Espainiaz harantzagoak ez zuen existitzen. Errealitate nazioanitza administrazio hutsezko arazoa baino ez zen izan haientzat.

Baina, bipartidismo horrez gain, hauteskunde hauetan beste fenomeno bat sortu da harea politikoan, munduko herrialde askotan nabaria zen fenomeno bati jarraiki, telebistak inoizko protagonismoa izan baitu honakoan.

Telebistaren eragina

Bereziki aipatu behar da, hauteskundeetako bipolarizazio nabari hau bultzatu duten eragileen artean, telebista-katea pribatuek izan duten jokabide mediatikoa. Katea pribatu hauek, oro har, bestetan Estatuaren esku egon diren telebista publikoen ohizko eragina desbideratu dute zeharo, politikagintzak gutxi gorabehera kontrol edo iragargarritasunaren menpean zeukana distorsionatu dutelarik.

Ezinbesteko aipamena behar dute **Antena 3** eta **Tele 5** kateek antolatu zituzten buruz buruko eztabaida-saioek, alegia, uste baino eragin handiagoa izan dutela ematen baitu.

Gaur egun, estatu-mailako telebistek, audientzia lortzeko borroka bizian dihardutelarik, ikuskizuna eskaini behar dute inoiz baino gehiago. Eta telebistek ikuskizuna eman behar zuten hauteskunde hauetan ere ekonomiaren legeak hala agintzen zielako, batez ere, kontutan hartzen badugu katea pribatuen sorrerarekin audientzien esparrua finkagabea dagoela egun. Ondorioz, politika ere ikuskizun bilakatu behar zuten, hein batean.

Esan nahi baita, ikusentzulegoa bereganatzeko helburu horrekin, politikaren dikotomizazioaren printzipioari jarraiki zaizkiola telebistak, egunean egunean aldakorak diren audientziak lortzeko norgehiagoka eta lehia-egitura bortitz horretan, jakina, telebista komertzialak mezu laburbildu eta sinplifikatuak erabili beharra baitu, eta, ikerketa guztien arabera, dikotomia da gizabanakoak errazen erakartzen eta baitaritzen duen kategoria. Beraz, telebistek, estrategikoki mundu politikoaren dikotomizazioa bilatu behar izan dutelarik, bipartidismoa bultzatu dute inoiz baino areago.

Programatzaileek jakin badakite eta, arrazoi politiko ahituez, programa errepikakorrez eta eskaintza merkeez aseberetik eta nekaturik dauden audientziak, mezu politikoaren edukiekiko atrinxeraturik dauden boto-emaileak, erraz erakar daitezkeela buruz buruko eztabaidaren espektakulura. Badakite kanpaina politikoetan ematen ez diren berritasun

formalak eskainiz, arerio biren borroka, erronka, duela, eta heroi mediatiko horien odolaren usaina, lehen mailan jarriz, zuzenean erakarriko dutela ikusle-kopuru mamitsu bat.

Batek baino gehiagok pentsa lezake, ordea, katea pribatu hauek eman zituzten audientzi indize oso altuak kontutan izanda ere, ezina dela telebista aurreko eztabaida soil batzuek hain eragin handia izatea.

Baina, erreparatu behar dugu, eztabaida mediatiko haiek kanpaina guztiaren tonua markatu zutela zeharo.

Tele 5 eta **Antena 3** telebista-kateek antolaturiko eztabaida-saio haiek espiral baten erpinak izan ziren, elur-jauzi baten hastapenak, zeren eta handik aurrera, ez baitzen egongo komunikabide bakar bat, Estatuan zein nazionalitate desberdinetan, eta kanpaina osoan zehar, eztabaida-saio haiek aipatuko ez zituenik. Are gehiago, buruzagi politikoez beraiek ere, aktibaz edo pasibaz, eztabaida haiek izango zituzten aipagai eta lehen mailako erreferentzia, komunikabideen eta hautesle goaren aurrean.

Eta, zoritxarrez, badirudi bipolarizazio hark sakonki bota dituela erroak kontzientzia kolektiboan.

Adibide bitxi eta soberan esanguratsua ekarri nahiko nuke honen inguruan, duen garrantzia baino gehiago eman nahi izan gabe. Hauteskundeak baino egun batzuk beranduago egunkari abertzale bateko kirol-sailak EEBBetako saskibaloi-txapelketa zuen mintzagai lehen orrialdean, Chicago Bulls eta Phoenix

Suns taldeen arteko azken play-off-ak, hain zuzen ere, eta hara nolako harribitxia eskaintzen digun kazetariak:

“En el primero de los cinco debates que se televisarán se impuso González Jordan. El aspirante Aznar Barkley, que sueña con ganar de forma enfermiza, no estuvo a la altura de las circunstancias, pero ya ha jurado venganza. A primeras horas del domingo, es decir, cuando los más golfos están en su salsa, veremos el segundo capítulo de este debate que no ofrece Tele-5, sino TVE” (Egin, 1993-VI-11).

Norbaitek pentsa lezake baliabide erretoriko hutsa baino izan ez zela kazetariaren aldetik, txantxari edo metaforari tarte txiki bat eskaintzen ziola, besterik gabe, haren luma zorrotzak. Eta hala izan bide da, gainera.

Baina, adibide bezala harturik ere, galderaren bat sortarazten digu gertakizun honek. Ez al da, bederen, asaldagarria hain oihartzun handia izatea ezarri nahi izan zaigun dikotomia honek?. Ez al digu adibide honek komunikabideek sortzen eta inposatzen dizkiguten ulerkuntza eta kognizioen indarrak zer pentsaturik eskaintzen?

Ez dut esango komunikabideek erabateko eragina sortzen dutela ikusentzule goarengan, honakoan bezala, gaietan eta tratamenduetan adostasuna edo kontsonantzia ematen denean; baina bai, bederen, bere geografian ari diren komunikabideen jabegoa ez duen komunitate nazional batek garrantzia handiago eman beharko liekeela, hasteko, bere esku dauden komunikabideen kontrolari eta, batez ere, ahalegin handia egin beharko

lukeela komunitate horrek berez dituen iragazki kulturalak sendotzeko.

Komunikabideek, bada, klima politiko zehatza ezarri zuten, eta klima honen baitan zetozen zedarrituak borroka politikoaren esangurak bezala sinbolo eta kognizioak.

Maiz gertatzen zen, adibidez, alderdikide nazionalistaren batek tarte mediatiko ez-formal bat lortzen zuenean, bere nazioari eta nazio-proiektuari buruz barik, estatuari zegozkion arazoiei erantzun beharra edo estatuko buruzagi nagusienek esandakoa komentatu beharra. Eta pentsa daiteke, hala ez bazen, iritzi-giro horren barruan, publikoak estatugintzarekin baino ez zuela adiskidetuko haren solasaldia. Eta, noski, paradoxikoa, bederen, gertatzen zen, estatuaren defentsarako irudi egokiagoa emango baitu beti, eta beraz oihartzun zabalagoa izango, proiektu estatala duen buruzagiaren mezuak.

Noski, ez dugu esango orain artean aipatu prozesu politiko eta mediatiko bi hauek, alegia, gobernu eskuratu beharrak sortu zuen pragmatismoak eta komunikabideen ihardunak, erabat esplika dezaketenik nazionalismoaren gainbehera erlatibo hori. Kontutan hartu behar dira ere, geroago ikusiko dugunez, euskal nazionalismoa osatzen duten talde desberdinen barne-arrazoia eta ahuldade kointuralak. Baina eraginen bat nabari daiteke aipatu bi parametro hauetan.

Estatuko nazionalitate historikoei begiratzen badiegu, eta zehaztasun handiegitan sartu gabe eskainuei erreparatzen, ikusiko dugu Galizian nazionalistek ez dutela batera aulkirik

lortu, PP-PSOEek Galiziar zegozkion 26ak partekatzen dituzten bitartean; Katalunian, berriz, hain emaitza oparoak igurikatzen zituen CIU, Kataluniako lehen alderdi politikoa izatearekin amets egiten zuen CIU, pixka bat baino ez da hazi bototan, baina eskainu bat galdu du, eta, bestela irakurtzearen, Kataluniako alderdi estatualistek, 29 aulki eskuratu dituztelarik, distantzia areagotu dute 18 aulki baino lortu ez dituzten nazionalistekiko.

Hego Euskal Herriari dagokionez, gauzak ez daude hobe. Esan beharra dago, alderdi estatualisten goradakaren aurrean, aukera nazionalista integratuenek bere botoari eustea lortu dutela gora-behera muga batean. EAJk 1989an baino 35.624 boto gehiago lortu baditu ere, 1991 baino 9.281 boto gutxiago ditu orain. Eta HB koalizioak, bere aldetik, 1989an baino 10.982 boto gutxiago izan arren, 91eko emaitzak hobetu ditu 3.410 boto gehiago lortuz.

Baina, oro har, boto nazionalistak behera egin du, EEaren desagertetaren eta EA-EUEren porrotaren ondorioz (1989an EAK bakarrik lortutakoak baino 7.695 boto gutxiago lortu ditu koalizio honek oraingoan), EAJ eta HBren oreka erlatiboak ezin baitu inola ere konpentsatu azken hauen beherakada.

Nazionalismoaren porrotaren neurri erlatiboari buruz hitz egin badugu, dena den, boto nazionalista bere onera etorri ahal delako izan da. Etorkizun batean, pentsa daiteke, hauteskunde autonomikoei begira, adibidez, gertutasun politikoak motibazioa areagotuko duela. Eta, garrantzitsuagoa dena, berreraikuntza ideologikoa gogoz eta aderez burutzen bada, hausnarketaren beharra serio

hartzen bada, mundu nazionalistak ilusioa berreskuratzen badu, nazionalismoaren oinarri soziala sendotu daitekeela kopurutan eta, batez ere, barne-trinkotasunean uste daiteke. Baina, oraingoz, gora-behera honen baitan dagoen hautesle-multzoa oso eutsiezina ageri da.

Orain arte aztertu dugun bipolarizazio honek, ordea, beste ondorio bat ekarri du berekin batera. Bipolarizazioak hauteslego estatualista lehia markatuago batean baitaratu du, boto estatualista erakarri du. Hots, bipolarizazioak abstentzio estatualistari egin dio tira Hego Euskal Herrian, aspaldion gertatu ez bezala.

Abstentzioaren giltzarria

Esan dezadan hitzerdi batez: abstentzioak ere Espainiatik bereizten eta alderatzen gaitu.

Eta ez dago maltzurkeriarik baieztapen honetan, izan ere, nazionalismoak bere egoeraz hausnarketa sakona egin behar duen tenore honetan, ausardia barkaezina izango bailitzateke nire aldetik.

Joan den ekaineko hauteskundeetan abstentzio-neurri bi eman direla dirudi, datu guztien arabera, bata Espainiarentzat eta Hego Euskal Herriarentzat bigarrena.

Espainian 1982tik aurrera eman ez ziren partaidetza-kopuruak erdietsi dira oraingoan. Gobernu-aldaketarako aukerak bultzatu duen bipartidismoak eta komunikabideek indartu duten hautagaien bipolarizazioak hauteslegoa urnetara erruz gerturatzea izan du ondorio.

Partaidetza-indize honek, dena den, motibazio berezia gordetzen du bere baitan.

Bipolarizazioak errealitate konplexuago bat izkutatzen du, egon litezken joera politiko desberdin guztiak zentripetatzen ditu muturreko bi aukeren inguruan, eta egoera politikoaren sinplifikazio manikeo bat lortzen du.

Ez da oso burutsua izan behar jakiteko halako eskema sinplifikatu bati erantzuten dion giza egintza batek areago duela erakusten sentipen eta grinetatik arrazoi politikoetatik baino. Eta honakoan botoaren mobilizazioak ezaugarri horiek erakutsi ditu. Esan nahi baita, bipolarizazio amorratuaren eraginez, hasiera batean hauteskunde hauetan jokoan zegoenaren zentzu politikoa ere eraldatu egin dela.

Hauteskunde hauek ez dira izan Espainian, analisi eta iragarpen guztien arabera uste zitekeen bezala, abstentzioaren bidez adieraziko zen azken epai kritiko bat Estatuko egoera ekonomiko nahikotxo larriarentzat edo klase politikoaren ustelkeria salatzen abadagune bat. Hauteskunde hauetan ez da ispilatu abstentzioaren bidez politikagintzaren deslejitimazio publiko nabaria. Aitzitik, hauteslegoa ahaztu egin da abstentzio sonatua iragarrezakeen ohizko bozketen prozesu politikoaz eta, halaber, PSOeri dagokionean, alderdi honek aurreko urteetan egin politika ezkorrrari abstentzioaren bidez zigortu beharraz.

Jendea sinbolo biren indarpean jarri baita Espainian ekainaren 6ko hauteskundeetan, gizartea antolatzen egitasmo edo estilo abstraktu biren defentsan eta tradizio politiko-teoriko biren defentsan. Abstentzioaren

% 22,72ko indize baxuak ematen digu horren berri zehatza.

Hego Euskal Herrian, aitzitik, abstentzioa zazpi puntu gorago jarri da Estatuan baino. Urnetarako joera zertxobait errekuperatu bada ere, hurrenez hurren 2,5 eta 4,3 puntutan 1989 eta 1991ko emaitzekin alderatuz, botorik eman ez dutenen kopuruak ehuneko 28,95ko portzentaia iritsi du.

Abstentzio honen zentzua oso bestelakoa da, ordea, ez baitirudi koalitatiboki Espainian eman denaren antza duenik.

Hego Euskal Herrian egon litekeen abstentzio espainolak urnetara egin duen bitartean, bertako abstentzio nazionalista ixilik geratu da, bozik eman gabe, baina, agian, zerbait adieraziz, nekeren bat, etsipenen bat, eznahikotasunen bat, edo dena batera, segurasko.

Kontutan hartu behar da, hipotesi hau egiaztatuko badugu, abstentzioaren indizerik altuena Gipuzkoan eman dela, %32,54ko portzentaiaarekin, abertzaleena den herrialdean, hain zuzen ere, eta honek irakurketa berezia behar du izan, zalantzarik gabe.

Esan daiteke hautesle-kopuru nazionalista batek uko egin diola gurean Estatuan eman diren partaidetza-indize errekuperatu horren logikari.

Labur adieraztearren, azken hauteskunde hauetan abstentzioaren iragazpen bat eman da Hego Euskal Herrian. Bertako hautesle estatalista botoa eman eta iritzia publikoki adierazteko inoiz baino motibatuagoa egon den bitartean, bai PPK eta baita

PSOEK 1989 urtetik hona, hurrenez hurren, izan duten 90.751 eta 78.872 botoko gehikuntzan isladatzen denez, boto nazionalistaren zati bat aukera espainoletara joan da eta besteak abstentzioa aukeratu du.

Eta hemen ez digu balio euskaltasunari buruzko diskurtso alferrak. Baskoa da, iritzia emateko eskubidea du, Euskal Herrian bizi denak oro. Baskoak dira abertzale bozkaten dutenak eta espainol bozkaten dutenak. Ez du ezertarako balio etorkinen fenomenoaz kexu izatea. Gaudenak gara eta abiaburu hau hartu behar dugu begietan.

Zeren eta hauteskunde hauek ahaztuta bezala geneukan errealtate espainolista setati hori azalarazi badigute, euskaltasunari buruz eztabaidan hasteak ez baitu batere helburu pragmatikorik. Balizko euskaltasunaren diskurtsoa errealtate soziologikoa eta herri honen hurbileko historia ukatzeko modu bat baino ez da.

Nazionalismoak errealtate hau politikoki erakartzeko erakutsi duen ahuleziaren inguruan planteiatu behar da eztabaida eta ez beste inon. Oinarri sendorik gabe dabilenak muturrez aurrera erortzeko arrisku bizia baitu beti, hauteskunde hauetan neurritz kanpoko igurikizunak zituztenekin gertatua lekuko. Errealtate politikoa bere osotasunean aintzakotzat hartu gabe proiektuak sortzea hareazko gazteluak eraikitzea da, lehen uhinaren erasoarekin, halabeharrez, bertan behera amilduko direnak.

Ohartu behar gara jarrera espainolista hau, giza multzo horren mobilizazio politikoa, aurrerantzean berriro ere eman daitekeela. Eta

egitate honek berebiziko garrantzia du ezein estrategia diseinatzeko hasterakoan. Kontutan hartu behar dugu, Estatuak jende-kopuru hau mobiliza lezakeela, hala behar izango balu, esate baterako, **Xabier Aierdi** (Egunkaria, 1993-VI-9) irakasleak iradoki duenez, Euskal Herriak duen autodeterminatzeko eskubidea babes sozial nahikorik bildu gabe aldarrikatu nahi izango balitz.

Kontua ez da, hala ere, hauteskunde hauetako emaitzen irakurketa etsitu batzuetan aditzera ematen den bezala, abstentzio espainolista gehituko deneko egoera itzarotea estrategia diseinatzeko. Abstentzioaren gora-beherei zain egotea gezurretan eta amets garbienen atzetik ibiltzea bezain arriskutsua izango litzateke nazionalismoarentzat. Ezin da egitasmo politiko sendorik eraiki abstentziora aldeko ala aurkako izango zaigulako iragarpen soilaz, abstentzio espainolaren gehikuntzari abstentzio nazionalistaren balizko gutxipen koiunturala kontrajarriz.

Abstentziora ez da partaidetza eta proiektu baten sendotasunaren adierazle izango inoiz, eta Euskal Herriaren eraikuntza-proiektuak partaidetza eta hauteslegoaren aktibotasuna behar ditu eskutik.

Abstentzioarekin lan egin gabe, bada, botoarekin egin behar da lan. Nazionalismoak bere hauteslegoa segurtatu behar du eta, gainera, hauteslego berria erakarri bere mundu-ikuspegira.

Aipamen berezia behar du, zentzu honetan, gazteriarren motibazioak eta, batez ere, inmigrazioaren ondorengo diren gazte haienak. Inmigrazioak,

denboraren poderioz, bere erro kulturalak galtzen dituen heinean, gero eta eragin txikiagoa izango du gazteengan, jadanik, etorkinen seme-alaba izan arren erreferentzia kultural nagusia bertakoa dutenengan. Kultura sortu berri honen nondik- norakoak moldatzen ahalegindu behar du nazionalismoak. Ikuspegi nazional batetik irakurrita, etorkizunari begira herri honen koordenada politiko berriak zedarrituko dituen populazio-sektore horren motibazioak berebiziko lehentasuna izan beharko luke mundu nazionalistarentzat.

Ez dago esan beharrik langintza hau oso neketsua dela eta kostu pertsonal handiak dituela, baina ez dago beste biderik. Eta neketsua da, besteak beste, ikusten ari garenez, egitasmo honek komunikabide espainolen iharduna boteretsua duelako aurrez-aurre.

Komunikabideen eragina bortitza izan da estatuaren zama ideologikoa hedatzeko orduan eta bortitza izango da oso, gerora ere, batez ere nazionalismoak aurre egiteko sistemarik aurkitzen ez badu.

Komunikabideen kontrola

Komunikabide espainoletan, guk baimendu gabe etxe bazterretaraino sartzen zaizkigun irrati eta telebista espainoletan, ez dago batere lekurik gure nazio-eraikuntzarako. Begirune soziologiko apurrena ere ez da somatzen haietan Euskal Herriarekiko.

Leku-falta hau oso garbi ikusi da azken hauteskunde hauetan. Adibide bat jarriko dut honen inguruan, eduki sinbolikoetan sartu gabe, espazio mediatikoari begiratu dion ikerketa

bateko datuak ekarriz bakarrik. Legearen araberako ohizko tarte politikoetatik kanpo, buruzagi politikoaren agerraldiak neurtu zituen azterketa horretan ageri da, hauteskunde aurreko bost egunetako epe batean (martxoaren 14tik 19ra bitartean, hain zuzen ere), guztira eman ziren ia bi orduko (101' 53") ager-penetatik, izen eta geriza hain handiak lortu dituen EAJen nazionalismo moderatuak apenas izan zituela 3 minutu pasatxo (3' 31") estatuko telebistetan. Gainerako aukerak, jakina, agertu ere ez ziren egin.

Normala irudi liteke Espainian hain tarte gutxi ematea Euskal Herriaren ordezkariak bati. Baina, kasu, portzentaia berori da komunikabide espainolek Euskal Herrian Euskal Herriari egiten dioten arreta, ia hutsaren hurrengoa. Espainiako telebistek Espainiari buruz baino ez dute hitz egiten Euskal Herrian.

Esan nahi baita Euskal Herriaren erreferentziak apenas duela lekuri Espainiako komunikabideetan. Eta Espainian onargarria izan badaiteteke, dugun pisu espezifiko txikiaren arabera, Estatuko komunikabideetan Espainiari ematen zaion normaltasunezko tratamendua anormal bihurtzen da Euskal Herrian. Alegia, Euskal Herria mezuak igortzen dituzten komunikabide espainolentzat apenas esistitzen da Euskal Herriaren kontzeptua.

Eta, gainera, bertakoak diren komunikabideek ere ez diote garrantzia gehiegirik eskaintzen, gehienetan, euskal nortasunari. Espainolistak diren bertako komunikabideek mezu nahasgarriak erabiltzen dituzte Euskal Herriarekiko

eta, ustez behintzat, abertzaleak direnek mezu epelegiak jaurtikitzen dituzte maizegi.

Ez naiz ni, noski, jokabide honetaz erreparatu duen lehena. Begira, bestela, zer dion **Xabier Kintana** jaunak honi buruz, salatzen duelarik:

“Hemengo komunikabideen joka-bide gero eta espainolagoa, ETB-2rena batik bat, kanpotiko populazioari bertoko jende, kul-tura, balio, artista eta intelektualen berri hedatu beharrean ‘Entre amigos’ eta ‘Rifi-Rafe’ moduko espainoladak bultzatuz, hemen Valladoliden baleude bezala sentierazi dietena” (Egunkaria, 1993-VI-11).

Bertako komunikabideek ahalbidetzen badute Euskal Herriko populazio-kopuru handi bat Espainiako erreferente sinboliko berdinekin lasai-lasai, bihotz zimiko ideologikorik gabe, bizi ahal izatea, Euskal Herria izan badela jakin ere gabe, nekez zabalduko du nazionalismoak bere oinarri eta sostengu soziala.

Salagarria da guztiz jarrera hau, inperialismo kulturala bertatik bultzatzen dela adierazten baitu, eta gure esku dago kexa altxatzea dagokion lekura.

Nazionalismoak kontrol zehatza goa izan behar du komunikabideetan.

Ez al lukete Autonomia Estatutuek eskumenik izan beharko bertan ari diren komunikabideak kontrolatzeko, esate baterako, komunikabide horiek populazioaren soslai linguistikoa errespetatu ezaten? Kontutan hartu al da alor hain erabakigarri hau autonomia desberdinen legeak ituntzerakoan?. Ezezkoan

egoteko arrazoi nahikoak ditugu, kontrol honek estatuaren beraren oinarrietariko bat jar bailezake kolokan, propaganda kognitiboarena, hain zuzen.

Komunikabideen kontrolari dagokion marko juridikoaren aldaketa lortzen ez den bitartean, nazionalismoaren helburu izan beharko du bere presentzia sinbolikoaren itzala komunikabideetan sendotzeak. Eguneroko espazio publikoa mezu eta ekimen esanguratsuz bete behar du nazionalismoak eta ahalegindu ekimen hauek behar besteko oihartzuna izan dezaten bertan ari diren komunikabideetan.

Honez gainera, nazionalismoak lagundu egin behar ditu, inolako erreparorik gabe, alde dauzkan komunikabideak eta, noski, komunikabide-sare berri eta herrikoiak eratu eta bultzatu kontrainformazio gisara.

EGUNKARIA jasaten ari den boikot instituzionala ulertezina eta onartezina da, zentzu honetan. Politikoki barkaezina da, egoera gutxituan bizi den komunitate linguistiko nazionalari euskaraz bizitzeko aukera ukatzea, nazionalismoaren beraren sektore baten aldetik, arrazoi justifikaezinak dituen boikot instituzional horren bidez.

Komunikabide herrikoi horiek baitira, herri horrek bizirik eta osasuntsu dirauelako erakusgarria ezezik, nazionalismoaren arnasa ere.

Euskal nazionalismoaren makurraldi baten adierazgarriak

Ekainaren 6ko emaitzek euskal nazionalismoaren makurraldi baten adierazgarri izan dira eta, jakina, nazionalismoaren gainbehera erlatibo hau esplikatzeko ez dira nahikoak orain artean aipatu ditugun kanpo-arrazoiak, bere horretan eta besterik gabe.

Atzeraezina da, honenbestez, eta gurera etorritz, Hego Euskal Herriko prozesu politikoa bere osotasunean ulertuko badugu, bestelako barne-arrazoi soziologiko batzuk bilatzen saiatzea. Espektrorik nazionalistaren ezaugarri bereziei errapatatu beharko diegu ere, boto nazionalistaren galera bezala hautesleak abstentziora jotzea itsukeriarik gabe esplikatu nahi badugu.

Luza ditzagun hipotesi batzuk.

Fenomenorik aipagarriena EA-EUE koalizioarekin eman da. Porrota nabarmena izan da, koalizio honek espazio politikorik ba ote duen ere pentsatzen hasteko adinekora.

EAren boto asko EAJera joan da, "gurasoen etxera" eta, antza denez, joera hau areagotu egin daiteke aurrerantzean, batez ere EAJk, berehala igerri ahal izan denez, nazionalismo moderatuaren indartu beharra presio eta mehatxu moduan erabiltzen badu.(*)

EEaren hautesleriaz, berriz, kabala asko egin daiteke. Baina zuzenena da uste izatea, joera politiko desberdinen zehaztapen nabariagoa

(*) Artikulu hau idatzi zenean ez geneukan EUE eta EAren arteko zatiketaren berri. Baina denak iragartzen zuen gertatu zorian zegoela.

lortzen ez den bitartean behintzat, zati bat EA-EUE koaliziora joan dela, EAJera ihes egindako botoak konpentsatzeko nahikotasunik gabe, PSOera beste zati bat, Hego Euskal Herrian 51.821 boto irabazi dituen IUra beste hirugarren bat eta, azkenik, abstentzioaren eta etsipenaren bideari, bestela esatearren, noraezaren bideari, ekin diotela beste batzuek, seguruenik.

1991tik hona 3.410 boto irabazi ditu HBk, azken urte hauetan erakutsi ohi zuen beheranzko joera ia eten-gabeari aurre eginez. Geroak emango du, dena den, gorakada honen balizko segurtasuna.

Hala ere, koalizio hau urruti xamar dago 1987an lortu zituen 251.849 boto haietatik. HBk 45.553 boto galdu ditu bide luze honetan. Eta HBren hautesleriaren soslai politikoa guztiz fidela dela ikusirik, kopuru handi bat abstentzioan ezkuta daitekeela somatzen da. Alde batetik, HBren inguruan bere botoari Madrilera legebiltzarrean funtziorik ematen ez diolako edo, oro har, trantsiziorako sistema politikoaren jokoa onartzen ez duelako, botorik eman ez duen hautesle-kopuru bat egon daiteke. Baina, halaber, disidentzia politikoa adierazi beharrean gertatu den beste talde bat ere egon daiteke.

Hautesleak eta aldekoak, oinarri soziala deritzona, gehitzea helburu badu, HBren ahaleginak lau bidetan barrena abiatu beharko lirateke: koalizioaren barruan disidentzia erakutsi duten sektoreak berreskuratu beharko lituzke, EE ohiaren sektorerik nazionalistenak erakarri beharko lituzke zalutasuna erabiliz bere politikagintzan, abstentzio erradikala motibatu beharko luke hurrengo

hauteskundeetarako eta, azkenik, adierazle guztiek seinalatzen dutenez, IUra ihes joan den ezker muturreko botoa bereganatu beharko luke.

Azken sektore honekin ezker abertzaleak izan dituen oker edo abegigabekeria politikoak zuzentzeak ezinbestekoa dirudi, honenbestez. Herri Batasunak eztabaida politikoa ireki beharko luke, nazionalismo ezkertiar eta aurrerakoiaren erreferentzia izango bada, orain arte gatazka sozialari gatazka nazionalari baino garrantzia handiagoa eman dioten taldeekin.

Eztabaida ireki honetako argudioen artean egon beharko luke ezkerreko korrante filosofikoen doitasun eta errebisioak. Sozializazioa, internazionalismoa edota elkartasuna bezalako balioak ez dira erkaezinak norberaren nazio-erakuntzarekin, aitzitik, nazioaren eraikuntzatik hasten dira, nazioaren eraikuntzan oinarritu behar dira hutsik eta teoria alferretan geratuko ez badira.

Ez dirudi, bere aldetik, EAJk abstentzioan hautesle asko utzi duenik. Aitzitik, datu guztien arabera, boto-andana bat joan zaio PPra, EAatik inguratu direnekin nolabait konpentsatu dituenak. Hala ere 1991tik hona 9.229 boto galdu ditu, eta gonbarazio bortxatu xamar baterako, eskandalugarria gerta daitekeen datu bat aipatzearen, 1984eko autonomikoetan lortu zuen boto-sapaiarekin alderatuz, 178.953 boto galdu ditu. Eta EAren zatiketak ezin ditu gabezia guztiak estali, ezin da izan betiereko aitzakia merkea. EAJek ez ditu, honez gero, EAra joandako boto guztiak bereganatuko eta, hala gertatzekotan

ere, boto-sapai hura urruti geratuko litzaioke.

Pentsa liteke, hauteskunde ostean EAJek EAko hautesleak bereganatzeko egin dituen ahaleginak emaitza positiboak izan ditzakeela labor batean. Baina, pentsa daiteke ere, gehiegizko setiapien batek uxatu egin ditzakeela hautesle horiek, zatiketaren zauriak orbaindugabeen daudelako, artean. Estrategiari neurria galtzeak, beraz, ezustekoak sort ditzake ere.

Honez gain, EAJek bere egitura nazionala desorekatzen duen Nafarroaren kasua hartu behar du aintzat, non ez baititu boto-apur batzuk baino lortu.

Nafarroaren kasuak, bestalde, aipamen berezia behar du izan azterketa politiko honetan, zeren eta Hego Euskal Herriaren kontzeptzio ideologiko orokorzalearekin, herrialde historiko honetan nazionalismoak erakusten duen egoera lazgarria ezkututzen baita sarri.

Azken hauteskundeetan aber-tzalegoak botoen %15a baino ez du lortu Nafarroan eta, **Josu Txueka** historialariaren (EGIN, 93-VI-31) hitzak erabiliz, Nafarroan laurogei urte bete dituen euskal nazionalismoak hirugarren indar politikoa izaten jarraitzen du, alderdi politiko nazionalista desberdinen indarrak metaturik ere.

Ez al litzateke planteiatzen hasi beharko estrategia desberdina Nafarroako nazionalismoarentzat? Zalutasun handiagoa eskatu beharko litzaieke indar abertzaleei arazo puntualei erantzuteko orduan. Nafarroan garrantzia izugarria duen euskararen gutxienezko normalkuntza eta onarpenaren auzian, esate

baterako, **Oinarriak** plataformak ireki duen bideari jarraitzea ez litzateke jokabide politiko okerra izango.

Eta, agian, helburuak eta eduki politikoak ere beste era lausoago eta apalago batean aurkeztuko litzatekeen egitasmo politiko bat planteiatu beharko litzateke. Euskal Autonomi Elkartearekin Nafarroako jendeak dituen ezinikusi bortxatu eta interesatuak gailentzea izango litzateke, zalantzarik gabe, egitasmo honen lehen helburua.

Indar-korrelazioak hala agindurik, Iparraldearekiko aspaldion onartuta bide dagoen estrategia nazionalistaren berezitasunak balio beharko luke Nafarroan ere, behar bada.

Zer pentsatu bada, beraz, guztiontzat.

Hego Euskal Herriaren egoera politikoa laburbiltzeko formulazio sotilago bat erabiliz, baieztatu daiteke nazionalismoak indar erreferentziala galdu duela, aspaldiko partez. Talde nazionalisten ihardun politikoak asebate ez duen hautesle-kopuru bat badago egon, ixilik geratu edo bestelako botoa eman duena.

Eta galera garrantzitsu honen erantzunkizuna alderdi nazionalista beraiek daukate, bakoitzak eta guztiek. Beren eginkizunik behinena da boto galdu hori berreskuratzea. Esan beharrik ez dago, guztien lana gutxi izango dela nazioaren ideiak eduki dezakeen erakargarritasuna berreskuratzeko, guztien hausnarketa eta gogoia izango dela beharrezko.

Egia da, etorkizunari begira, nekez emango dela, berriro ere, halako abstentzio eta boto espainolaren

bultzadarik. Esan nahi dugu, aldian behin, 1977an, 1983an eta 1993an eman diren indizeak errepikatzeko, esparru politikoan oso baldintza bereziak bildu behar direla batera. Baina ez dezagun begietatik bazter espainol bozkatzeko duen edo abstentzio espainolean ezkutatzeko den populazio soziologiko hori erreala dela izan, eta eskaintza berrietara erakartzeko egin behar direla ahaleginak.

Ilusio zapuztuz beterik dagoen bake sozialarena izan daiteke eskaintza hau, besteak beste. Eta honekin batera nazio-proiektu ireki, sendo eta amankomun baten eskaintza.

Nazioarena inolako epelkeriarik gabe plazaratu behar den kontzeptua da, estrategia, diseinu eta epe-kontu desberdinen gainetik.

Beldurraren estrategia

Beldurra ere aipatu da, nonbait, PSOEk izan duen boto-berreskuraketa esplikatzeke ezezik, hauteskunde hauen gorabeherei ere arrazoiak aurkitu nahian. Eta merezi du gai honek hitz erditxoren bat.

Beldurra egon omen da, pentsioak, langabezi saria edo gizarte-laguntzak segurtatu nahirik, pragmatismora jo duten sektore batzuetan. Beldurra egon omen da, halaber, iragan autoritarioaren oihartzuna artean bizirik gordetzen duen jende horrengan. Eta beldur hauek erabili omen dira era gaizto batez hauteskunde hauetan.

Gauza hain asaldagarria al da, ordea, beldurrarena politikagintzan, guztiak trapu zaharrak urratzen

ibiltzeko? Ez al da, neurri batean, beldurrean oinarritzen kanpaina politiko oro? Eta zuzenean beldurrean ez bada, ez al ditu astintzen gizabanakoaren iruditerian dautzan irriki eta grina ezkutuenak. Ez al dauka beldur-amini bat ezein sinbolok, ezein ikurrek, ezein buruzagiren irudi hiper errealak?

Ez al da politikagintza sinbolo-borroka bat, aspaldion arrazoiaren eta neurriaren azpian estali nahi izan bada ere, behin eta berriro sortzen eta berpizten dena?

Grinen munduaren indarra erabiltzea demokraziatik urruntzea dela baieztatzen duena, lege politiko bakar bezala arrazoiaren eta eztabaida parekidearen idealak aldarrikatzen dituen, oker xamar dabil. Edo inozoegia da politikaren mundutik arnasa hartzeko. Edo, bestela, aztikeria eta amarruetan dabil, seguruenik: manei politikorako kapital sinbolikoaren jabe monopolista izanik, gainerakoen erantzunak saihestu nahi ditu bere irudira itxuraturiko arrazoiarekin jantziz diskurtso politiko ororen balioa.

Aitzitik, hauteskunde hauetan, nonbait oker politikorik egon bada, grina politikoak mobilizatzen jakin ez dutenen artean egon da. Beldurak, igurikizunak edo oinarizko sentipenak norberarenari sendo eutsi beharra baitakarte berekin, eta erresorte antropologiko sakon hauek trebeziak erabiltzen asmatzen duenak izaten du gehienetan arrakasta politikan.

Arlo honetan, beldur gabe esan daiteke, nazionalismoaren iruditeria debaluaturik dabilela, aspaldion.

Ez al da epelegi ibili azken aldi honetan euskal nazionalismoa beste nazionalismoak, nazionalismo nagusi-tuak, harropuztu diren bitartean? Gogoratu, esate baterako, Espainiaren kasuan, Sevillako Erakusketa Unibertsala eta, inperialismoa kulturizazio-prozesu bilakaturik, Amerikaren aurkikuntzaren ospakizuna.

Ez al da lotsatuta bezala ibili euskal nazionalismoa, nazionalismo nagusiatuaren ezarpena baino ez den arrazoi eta neurriaren ikurra astinduz? Ez al da ibili bere izakera ezkutatu beharrean?. Ez al du erakutsi *statu quo* gailenduaren diskurtsoarekin erkatu nahi ezin absurdoago bat, halabeharrez paradoxa eta kontraesanetara eraman duena?.

Utz dezagun agirian behingoz: mobilizazioa emango denerako prest egon behar duen kapital sinboliko nazionalista karisma galtzen ari da.

Hauteskunde hauetan, adibidez, sinbolo-borroka bezala defini daitekeen prozesu bat, orobat, nazionalismoak ez du erakutsi, gainerako proiektuei aurre egiteko beharrezkoa den trinkotasun eta gotortasun kontzeptualik. Eta ez ez daukalako, baizik eta, joko sozialaren oinarria izanik, edonon erabiltzen den tresneria kontzeptual hau erabiltzea "itsusia" dela sinestarazi zaiolako.

Arrazoa, pragmatismoa edo neurria jarri dira beti nazionalismoak, bere jatorrizko grina antropologikoa alde batera utzirik, bereganatu behar dituen balio bezala. Baina arrazoi horrek irrazionaltasunik basatiena gordetzen du maiz bere baitan, menekoaren bizi nahirik doienak errespetatzen ez dituenean.

Politikagintzan arrazoiaren indar hutsa proposatzea, nazionalismoaren etorkizuna irabazteko estrategia bezala, aztikeria politikoaren erreinuan itsu egotea da, nagusituak menezkoarentzat diseinatu duen mundu-ikuspegi otzana bere horretan onartzea da, kopa lobelarra edan eta, gainera, lokarturik zauzkan zerbitzari gaiztoaren eskuari mun egitea inozo-inozo.

Nazionalismoa, zerbait bada, lurra da, odola eta itxaropena.

Nazionalismoaren ehizaldi sinbolikoa hasi da

Gauza ukaezina da buruzagi estatalistek euskal nazionalismoaren porrota irakurri dutela hauteskunde hauetan. Uste izan daiteke, gainera, aski indarberriturik, nazionalismoa borrokatuko dutela aurrerantzean ere ideologiatik eta eduki sinbolikoetatik. **Ramón Jaureguiren** hitzak, honen lekuko, nazionalismoa indargetu egin dela nabaritu ezezik, iragandako moda gainbeheratu bat baino izan ez dela ere adierazten duenean (El Correo Español, 1993-VI-13).

Nazionalismoa moda bat! Ez al zaizue iraina iruditzen? Ez al zaizue odola mintzen? Ez al zaizkizue eskuak urduritzen?

Baina ez hori bakarrik, ez dira aldarrikapen solemnetan geratu, alderdi espainolisten buruzagiek sinistarazi nahi baitote hauteslegoari, PP eta PSOEren gorakadak normalizazio politikoa adierazten duela. Egietsi nahi baitute nazionalismoak anakronikoak direla Europan, erabat zaharkituak geratu direla demokraziaren diskurtso politikoan.

Jaime Mayor Orejaren ekainaren 8ko lehen adierazpenek bete-betean ukitu zuten normalizazioaren ideia. Eta sozialisten aldetik, **Mario Onaindiak** hauteskunde hauetan Euskal Herrian ere European homologagarri diren alderdiek irabazi dutela argudiatu ondoren, **Jose Antonio Aguirianok** ekainaren 15ean eman duen prentsaurrekoan garbi utzi du, bere irudiz, abertzale eta abertzale ez diren arteko kontraesana gailendu egin dela behin betirako, abertzaletasunarena kausa atzeratu eta zentzugabekoa delako.

Beste testuinguru batean ere erabili da berriki normalizazioaren kontzeptua, orain artekoa sendotuz bezala. Estatuko gobernu osatzeko gehiengo sendoa behar zuelarik, Euskal Autonomi Elkarteko eta Kataluniako nazionalistak deitu ditu PSOEek eta gobernu horretan partaide izateko eskatu. Nazionalisten erantzun kolaboratzaileak berehalako irakurketa izan du **Ramón Jaureguiren** (EGIN, 93-VII-13) aldetik, berriro esan baitu, EAJ alderdiari buruz, nazionalismoa normalizatzen ari dela, hain zuzen ere, bere egin duelako Espainiaren eraikuntza.

Argudiatzen du **Jaureguik**, Europaren eraikuntza aitzakitzat harturik, euskal nazionalismo tradizionalak beti aldarrikatu izan duela estatuen desagertzea, eta hau berezko nazioek Europaren proiektuan lortuko zuten subiranotasunaren seinale izango zela. Aitzitik, orain, dio politikari sozialistak, EAJk onartu egin du Estatu espainiarraren beharra eta prest agertu da beronen eraikuntzan eskuhartzeko. Hau da, ondorioztatzen du **Jaureguik**, nazionalismo tradizionalaren normalizazioaren erakusgarririk garbiena.

Jakina, guztiok dakigu zein normaltasun-mota nahi duten jaun politikari hauek. Euskal Herria normalizatu egingo litzateke, hauen aburuz, nazionalismoa desagertuko balitz, Hegoaldeko lau herrialdeak, **Francoren** asmoetan bezala, eta aipua berariaz biltzen da, euskal kontzientziarik gabeko probintzia bilakatuko balira, Iparraldearen aipamena bera desagertuko balitz, etab.

Eta normalizazio-irriki gaizto honen erakusgarriak ez dira luzaro ezkutuan geratu. Berehala batez ekin diote, lotsa gutxirekin, sinbologia nazionalista orori erasotzeari.

Hara, esate baterako, zer nolako setaz hasi diren sozialistak orain arte EAJren euskune erdi sakratu eta ukiezina izan den Euskal Autonomi Elkartearen Lehendakaritza ere berenganatu nahian.

Fernando Buesa lehendakariordeak adierazi zuen aurreneko, bere ohizko zuhurtziarekin, ekainaren 8ko adierazpen batzuetan, laster Ajuria-Enean lehendakari sozialista bat ikustea espero zuela; honen atzetik, **Jaureguik** berak, **Buesaren** hitzen azpian gordetzen zen lehendakari-tzarako hautagaiak, bere egin zuen ideia hura egun batzuk beranduago; eta, azkenik, **Jose Antonio Aguirianok**, Espainiako Gobernuak Euskal Autonomi Elkartean duen ordezkariak, gauza bera errepikatuko zuen, ekainaren 15ean.

Hasia dute sozialistek hurrengo hauteskunde autonomikoetarako aurrekanpaina eta EAJren erantzuna onarpenik epelena izan da, **Ardanza** lehendakariaren beraren ahotan jarria, PSOEren lehiakide bakarra EAJ ahuldu eta kokildu hori izango balitz

bezala, eta ez nazionalismoaren mundu osoa.

Jarrera honen irakurketa doa egingo badugu, gutxienekoa izan daitekeen Euskal Autonomi Elkarteko lehendakariaren titularitatearen auziaz baino areago, esparru sinboliko nazionalistari egiten zaion enbido zuzenari erreparatu behar diogu. Hots, proposamen zehatz honen helburua, geroago etorriko den Euskal Herriaren espainoltasunaren aldarrikapenari oihartzuna gertatzen hastea da, nazionalismo demokristau tradizionalaren ahulezia politikoa probetxatuz horretarako.

Arabako sozialisten buruzagia den **Javier Rojok** (EGIN, 93-VII-27), inolako ezkutatu beharrik gabe eman digu proposamen honen xedea, Euskal Autonomi Elkarteko lehendakaritza lortzeko PSOEek bere ildo ideologikoa euskaldun mundura gerturatu behar ote duen galdetu zaionean ezetzik borobilena eman baitu. Espainolismoa Euskadin nahikoa lejitimatu dagoela adierazi nahi du, eta PSOEek ez duela gehiago ukatu beharrik Espainiaren eraikuntza dela bere kezka bakarra.

Eta hau ez dator bakarrik edo ustekabeen, baizik eta, garrantzia handiago duen iharduna baten ondorio da, alegia, poliki-poliki ahitzen ari direlako euskal nazionalismoaren adierazgarri eta ezaugarriak. Euskal kulturagintza nazionalari aspaldion egiten ari zaion eraso ankerra, esate baterako, ahulketa sinboliko orokor horren azkenburua bezala baino ez da ulertzen ahal.

Politikagintzan, ahuldade-egoera koiuntural batek hala agindurik, pragmatismoarekin zuritu dira, orain

arte, espainolistekiko paktuak. Bakoitzak jakingo du, honez gero, estrategia honek zein etekin ekarri dizkion nazionalismoari. Baina honek ezin du justifikatu, inondik inora, kulturagintza eta euskalgintzarekin, ohituretan eta adorean elikatzen den nazionalismoarentzat joko politikoak baino garrantzia askoz handiagoa duen esparru guzti horrekin, egin den laidoa.

Ez al ditugu bertan behera errazegi utzi herri honek hainbeste nekez lortuak zituen garaipen nazionalistik batzuk? Zeren eta, nazionalista guztiok gogoan ditugun lorpen hauek, orain demokraziaren agindu normalizatuaren gezurrarekin mozarrotu nahi dizkigutenak, nazio honen borroka existentzialaren eskutik etorri baitira, eta ez genozidio nazionalari espaloitik begira geratu diren erostarien lanturu zurietatik.

Ez al dugu, jadanik, sinesten egunerokotasunean ereiten duenak jasotzen dituela luzarora emaitza eta fruiturik umoenak?

Lorpen nazional hauek legebidera eramateko ahalegin zorrotzak egin dituzte erakundeek, eta eskertzekoa da, zalantzarik gabe. Baina, maiz, karga eta sakontasun sinbolikoez gabetu nahi izan dira berez politikoak diren tresna hauek, bultzatu eta funtsatu dituzten oinarri sozio-kulturaletatik urrundu nahi izan dira ardura larregi batekin. Are gehiago, jarrera fagozitatzaile ezin arriskutsuagoa ageri da, maiz, erakundeetan herri-ekimenetik sortu den ororekiko, paradoxikoki, mendebalde osoan gizarte zibilaren bermea diren ekimen hauek bultzatzeko seta berezia nagusitzen ari denean. Eta ez dezagun publikoaren eta

pribatuaren arteko sasi-eztabaida-
rekin nahas guzti hau, ez gaitezen
kaskarinak izan.

Ez al liguke gogora ekarri beharko
prozesu honek Eire berdea eta
gaelikoaren adibidea? Artifiziozko
eraikinak oso ahulak izaten baitira
hutsartean jasotzen badira. Eta,
honetan, historiaren erakutsiei
jaramonik ez egitea arduragabekeria
eta zabarkeria politikoaren adibide
maiseagarria da.

Auzi honetan esku tinkoz erabili
behar da kritikaren aitzorrotza.
Lehenagotik herri honek ahailegin
handiz lortu dituen irabaziei eusteko
ezgauza bada EAJ, ez dezala herri
dinamika hori indartzeko gai diren
herri-mugimenduen lana eragotz, ez
ditzala hain erraz onartu espainolis-
moaren abiaburuak, zeren eta, luzera,
bere idealaren aurka jokatzea baita.

Zein demokraziaren eta zein
normalizazio politikoren izenetan
eskatzen da amore emate etengabe
hau? Aurkituko al dugu inon hain
burumakur dabilen herririk? Noiz arte
iraun lezake gizaki adoregabatu horrek
bere burua ukatzen, bere izaeraz
lotsatzen?

Ideiaro nazionalista onartzen duen
alderdi politiko batek ezin ditu, inola
ere, aukera estatalistak zeharka
bultzatu, ezin die, errespetu osoarekin
ere, inoiz izan ez duten indar sinboliko
eta espazio publiko hori hain erraz
oparitu.

Batez ere, bidenabar euskaltzale
eta abertzale diren ekimen herritarrak,
AEK, EGUNKARIA, IKASTOLA eta
abarrak, hilzorira eramateko bidean
jartzen dituen bitartean. Honetan bai
ez duela balio paktuaren aitzakiak

EAJren aldetik. Garbi esan behar da
hainbat jokabide oker egon dela
alor honetan nazionalismo modera-
tuaren aldetik. Eta bada garaia
gaizkiegin politiko hauek kitatzen
hasteko, orain HABE erakundearen
ezariarekin eta birmoldaketa-
beharrarekin batera, politika kultural
erdirakoi honen hutsuneak agerira
irteten ari direnean.

Herrigintzan baitago naziona-
lismoaren etorkizuna, Euskal
Herriarentzat hainbeste ekarpen
interesgarri izan dituen herrigintzan.
Euskal izakeraren gordelekurik
dinamikoena eragozten baditugu,
berehala utziko diogu herri izateari.

Nazionalismoaren erreferentzia
lausotzen dugun bitartean erreferente
espainolei indarra ematea buruhilketa
politikoa iragartzeko lehen urratsa
baino ez da.

Euskal nazionalismoaren berreraikuntza

Azken urte hauetan mundu
nazionalista moderatuak erakutsi duen
epelkeria honen kariatz bezala,
bortizkeria politikoak sortzen duen
distortsio sinbolikoarenaz, nazio-
nalismoaren beraren adiera eta
zentzua zabartua gertatu da,
garrantzia kendu zaio berez euskal
komunitatearen ardatz izan behar
zuen sentipen bati. Kritikagarri eta
zalantzatsu utzi dugu nazioaren
kontzeptua, eta putreak, nola ez,
oldeka etorri dira sarraskiarekin
elikatzeraz.

Mundu nazionalistaren konpak-
tazio politikoa izan behar da eraso
odolkoi honen berehalako eran-
tzuna. Espazio sinbolikoa sendotu

behar du nazionalismoak, eta hau euskalgunetatik hasiko da, edo ez da inondik hasiko, espainolisten pozerako, honez gero, susmagarria bederen bada eta, burua nazionalistatzat izan eta oraindik euskarara inguratzeke ahaleginik egin ez duen jende guzti hori.

Txepetxek⁴ euskararentzat gune konpaktatuak eskatzen dituen bezala, nazionalismoak bere izakera eta eskakizun politikoak justifikatu eta funtsatuko dituen mitologia politiko konpaktua sortu behar du, gizarte-eztabaidaren ezein mailatan erabilgarri eta eskura izateko.

Nazionalismoak erakarpen-gune izan behar du, partiduen estrategietatik kanpo, hainbat oinarriko elementuri batera eta aho batez erantzungo dion sentipen bat, behar antropologiko saihestezin bat. Horrela bakarrik izan daiteke funtzionala.

Askok iragartzen duen bezala, nazionalismoa Euskal Herrian laburrera gehiengo baten aukera izango ez bada, edo gehiengo izatera iristen ez den bitartean, behintzat gutxiengo indartsu eta ekimenez betea izan ahal dadin.

Ezinbestekoa da, ondorioz, nazionalismoa ideologia bezala garbitzea eta sendotzea.

Estatuen boterearen aurrean, komunikabide estatualisten eraginaren aurrean, nazionalismoak bere sinbolismorik sotilena indartu behar du. Burujabetasuna ez zaigu oparituko, nazioaren sinbolismoa hezurmuinetaraino barneratuko duen oinarri

sozialaren borrokaren ondorioz etorriko da, eta ez beste inondik.

Herri-agerpen guztiek garrantzi handia dute, zentzu honetan. Metafora erraz bat erabiltzearen, Aberri Eguna urte osoko ospakizun bilakatu behar da. Herri Urrats guztiak, Nafarroa Oinez guztiak, Kilometroak guztiak, Araba Euskaraz guztiak dira, sentipen nazionalista ispiatzeko eta adierazteko leku.

Eta ez gaitezen eror sasi-progresiaren jokoan aberriari buruz hasten garenean.

Aberria burujabe duenak ez du zertan ospatu beharrik, eguneroko normaltasuna eta bizilegea baititu Aberri. Baina Aberriaren islada politikoa ikusteko paradarik ez duenak gogoan izan behar du beti eta edonon Aberri hori, gau eta egun ikusi behar du itxaropen hori loratzen ari dela, lanean eta atsedenean, atsekabeen eta jaiari, irrian eta negarrean.

Aberria burujabe ez duenak une oroz bizi behar ditu eta gogoan eduki bere nazioaren ezaugarriak, izakera, geografia, ohitura, barne-erritmoa, etabarrak. Une oroz saiatu behar du nagusi den mundu-ikuspegiaren aurka.

Aberria burujabe ez duenak egunero borrokatu behar du lengoaiarekin, Aberri horren erreferentzia zentzuz betea heda dadin, arerio duen ingurune kontzeptual batekin lehiazera.

Badugu zer ikasirik eta non eutsirik filosofiaren historian langintza honetarako, nazionalismoa behar

4. Sanchez Carrion, J. M.: *Un futuro para nuestro pasado*, Elkar, Donostia, 1987.

bezala ulertu eta aintzat hartu ez duen marxismoa⁵ alde batera utzi eta Greziara begira dagoen Ohituraren Filosofiara itzuliz, **Machiavelli**, **Rousseau**, **Hume** edo **Tocquevillerekin**.

Ez gara, dena den, maximalistak izango, neurri eta gogoetarik gabe biren artean zirt edo zart aukeratu behar duten horietakoak. Ez ditugu hemen ukatuko marxismoak zientzia sozialari egin dizkion ekarpenak eta, are gutxiago, Euskal Herriari. Euskal nazionalismoaren gertuko historia ezin da ulertu marxismoari aipamen zehatza egin gabe.

Baina zalantza sortzen zaigu ez ote duen euskal nazionalismo aurrerakoi eta aktiboenak marxismo bereganatu, beste garai batzuetan nazionalismo burgesa edo nazionalismo erromantikoa ere bereganatu zituen bezala, adierazpide ideologiko bat behar zuelako eta iraultza sozialean zein askatasun-proposamenean bere ametsen isladarik garbiena ikusi zuelako. Euskal nazionalismoak marxismoa bere ingururatzeko egin dituen ahalegin ugariak honen lekuko.

Esan nahi baita nazionalismoak hizpidea bilatu duela beti inguratu zaizkion ideologia eta esplikazio sozial desberdinetan eta orain, marxismoaren erakutsi batzuk nonbait ahituta, beste iturri batzuetan bilatu behar duela edateko ur freskoa.

Zeren eta nazionalismoaren irakurketa estrukturalak ukatu antzera egiten baititu herri baten egunerokotasunean ageri diren ohitura, balio eta bizilegeak eta, halaber, harreman hauekin batera behin eta berriro sortzen diren balio, sinbolo eta mundu-ikuspegi nazionalak. Abiaburu solidarioen garrantzia ukatu gabe, estrukturari antropologia gainezkatzen zaio etengabe.

Ez da artikulu hau leku egokia nazionalismoaren sendotze ideologikoarentzat proposatzen dugun Ohituraren Filosofia aztertzen hasteko, baina ezin diogu eutsi pentsamolde hori aurkeztuko duen aipamenean bat egin nahiari, azalezkoak edo anekdota-mailakoak izango badira ere.

Agustin Minondo eta **Beatriz Miranda** irakasleek Leioako mintegian behin eta berriro gogora ekarri digutenez, bere mugak eta bere zergak ezartzeko Euskal Herriak izan zuen eskubidean subiranotasunaren printzipioa irakurri zuen **Alexis de Tocquevillez**⁶ ari gara edo **J.J. Rousseau**⁷ ilustratuaz, Euskal Herrian bezala, bere auziak, legeak eta estatu-arazoak konpontzeko arte edo haritz baten azpiko espazio sakratua aukeratzen zuten herrietan ikusten baitzituen demokrazia, askatasun eta zorionaren eredurik nabarmentenak.

5. **Gotzon Garatek** 1972an argitaraturiko *Marx eta nazioa* liburuan ezin hobeki adierazten ziren **Marxek** nazioari buruz izan zituen aurreiritzi eta okerretako batzuk. Merezi du bai liburua berriro begietan hartzeak!

6. Tocqueville, A. de: *La democracia en América*, Alianza Ed., Madril, 1989, 108 or.

7. Rousseau, J. J.: *Contrato social*, Espasa-Calpe, Madril, 1987, 130 or.

Zeren eta, azken finean, **Rousseau-k**⁸ berak ezin hobeki adierazten digunez, filosofiak eguneroko bizitzan ikusten ditugun gauzak esplikatzeko balio behar du, zientzia sozialak herri baten ohiturak, legeak, bizipideak, sentipenak, irrazionaltasunak eta gorrotoak esplikatu behar baititu. Eta analisi estruktural batek nekez esplikatuko ditu guzti horiek era doi batez.

Ez da lan erraza saiakera honetan proposatzen ari garena, baina herri honek ez du bere historia luzean, aldez edo moldez, lan hori besterik egin, eta pilaturiko aberastasuna laguntza izugarria da. Gainera nazionalista baten bizitzari zentzua eta barne-lasaitasuna eman diezaiokeen aukera bakarra da berau, batez ere makurraldietan.

Aberria sentitzea arnasa hartzea edo elikatzea bezain soila da gizabanakoarentzat. Baina, era berean, gizabanako horrek ezinbestekoa du nazioa bere horretan eta osotasunean bizirik iraun dezan, elikatzea eta arnasa hartzea bezainbat, bederen.

Hona non agertzen den, guztizko indarrak, herrigintzaren oinarri etikoa izanetik eta izan nahiatik.

Eta honetan ezin gara bat etorri **Beltzak** oraintsu esan dituenekin. Borroka nazionalari edukin etikoa onartu bazaio marxismoak aldarrikatzen zuen estrategia orokor baten barruan izan omen da **Beltzaren** ustez (EGIN, 93-VII-28), hots, iraultzaren eta klase-borroka baten barruan; baina

marxismoa gainbehera etorri delarik, nekez ikusten omen zaio oinarri etikorik nazionalismoari.

Ez al dugu, ordea, bestela irakurri behar marxismoaren ekarpen etiko hau? Ez al da marxismoa bera izan behar etiko oinarritzkoenari erantzuna emateko erabili den ahalegin intelektual eta estrategiko bat?

Ez al da ari berriro loratzen praxian nazionalismoaren oinarritzko behar etiko hau, hain zuzen ere, marxismoaren irakurketa ideologikoak porrot egin duenean?

Marxismoaren zuzia ilusioz ahobeterik etorri zen zero goibelegia urratzera, erreferentzia poetikoa aski ezaguna zilegi bazait, suzko eta polborazko gezi bat bezala jalgi zen garai bateko gau iluna leherteraztera eta, noski, hausnarketa eta praxi askatzailea ekarri zituen berekin gizarte mugimenduetara bezala ideologia nazionalistara. Ilusio hori irabazi du nazionalismoak marxismoarekin.

Berdintasuna eta elkartasuna bezalako balio etiko-sozialak bereganatzeko parada eman dio marxismoak nazionalismoari. Nazio-askatasuna eta giza balio aurrerakoi horiek lortzeko bidean, gizarte-mugimenduetan antolatzen ikasi du nazionalismoak marxismoarekin. Ez al diogu guzti horri eutsiko marxismoaren teleologia estruktural okerraz ahazturik ere?

Izanari eta libre izan nahiari ezin zaizkio etikotasunak eskatu, kategoria

8. Rousseau, J.J.: *Discurso sobre el origen y los fundamentos de la desigualdad entre los hombres y otros escritos*, Tecnos, Madrid, 1989, 135 or.

etikoak baitira berez izanarena eta askatasunarena. Nortasun nazionala ukatuz, herri batek duen libre izateko gogoari eragozpenak jartzen dizkionenei eskatu behar zaizkie etikotasun-kontuak lehenik.

Nazionalismoari kontuak eskatu behar bazaizkie etikaren aginduak ez betetzeagatik, bere estrategiari eska dakizkioke bakarrik. Eta ez beti, esate baterako **Kantek**⁹ proposatu bezala, modu kategoriko eta unibertsal batez, kontutan hartu behar baitira, hotz-hotzean, herri horrekin botere-borrokan diharduten gainerako herri eta egitura politikoak. Unibertsaltasuna partzialkeria bilakatzen baita, azken batean, baldintzagarri politikoak ahazten direnean. Estrategia politiko nazionalista, nolabait esatearren, bere testuinguru etikoarekin batera epaitu behar da derrigorrez.

Aspaldi honetan, hain zuzen ere, oinarri etiko hau ukatu nahi izan zaio nazionalismoari botere faktikoetatik eta ahalegin gogoangarriak egin dira, heriotzaren eta hondamendiaren irudiak erabiliz, nazionalismoa sinbolikoki moral-gabeziarekin adiskidetzeko. Ilunbearen estigma ezarri nahi izan zaio demokraziak onartu ezingo duen elementu baztergarri bilakatzeko. Izenlagun ezeroso eta arbuigarri guztiak jarri zaizkie atzetik legendun edo izurridunari bezala, baztergarria delakoa, arrazismoaren eta ezin ikusi guztien oinarri delakoa eta abar. Eta, jakina, sinbolismo gaizto eta galkor horren eraikuntza behin eta berriro aipatu dugun sasi-progresia horren bizkar jarri da, nazionalismo nagusituen eskua eta interesa ezkutatuz, bidenabar.

Nazionalismoaren ezaugarritze sinboliko ilun, partzial eta azaleko hau zuzentzen eta bereoneratzen egin behar dira ahaleginak, bereziki.

Argudiatu behar da nazionalismoa herri oren izakerarekin adiskidetzen dela, berezko joera politikoa izango dela herri batean, baldin eta herri hori desagertu ala bere buruaren jabe izango ez den artean. Gizabanakoa askatasun unibertsalaren subjektu bakar den irudiko dela nazioa eskubidezko subjektu bakarra geopolitikan.

Frogatu behar da, Balkanetako adibide negargarria eredu-moduan jartzen denean, nazionalismoak ez dakarrela berekin irrazionaltasuna, hogeigarren mendean bertan eman diren beste askapen-prozesu nazional demokratiko anitzek erakutsi duten bezala. Eta, aitzitik, gehienetan irrazionaltasun hori nazio bati askatasun-ametsa ito nahi dioten nazio handikien aldetik sortzen dela.

Argudio nabari hauen aurrean errepikakor bilakatzen garela esango digute, topikoak baino ez ditugula erabiltzen, eta ez garela horretan batere modernoak, gaineratuko.

Ikusi nahi ez duenaren gorroto guztia, amorrazioa, gizagabekeria sakona erakusten du erantzun honek, sektarioaren arrazoi kamutsa.

Azken batean, beraziazko itsudura horren aurrean, gure geografia politikoa birdefinitu behar da, borrokan dauden nazionalismo arerio eta kontraesankor bik osatua datorrela erakutsi behar da, eta nazionalismo

9. Kant, M.: *Fundamentación de la metafísica de las costumbres. Crítica de la razón práctica. La paz perpetua*. Ed. Porrúa, Mexiko, 1986.

espainol zein frantsesaren aurrean kokatu euskalduna. Garbi esan behar da autonomismoa edo vasquismo autonomista nazionalismo espainolaren edo frantsesaren birformulazio operatiboak baino ez direla. Norberak bere lekua argi har dezan, batere zurikeriarik gabe.

Bortizkeria politikoari aurre hartu beharraz

Baina proiektu hau erro dadin nazionalismoaren erronkak bere gaurko barne-kontraesanik nagusia gailendu behar du laster batean, bortizkeria politikoaren auzia, aldebiko kontraesan moraletan sartu gabe, disfunzional bihurtu baita egun nazionalismoarentzat, batez ere, diskurtso politiko ororen ardatz eta erdigune korapilatu bezala erabiltzen ari denean, nazionalismoaren proiektua eta eztabaida politikoa eragozteko erabiltzen ari denean.

Bortizkeria politikoari aurre hartu beharraz ari gara eta ez aurre egin beharraz. Ulertzen baitugu gizarte zibilak egin behar duela bere, den horretan, bortizkeria politikoa sortarazi duen auzia. Uste baitugu, gainera, eskakizun nazionaletan batere atzera egin gabe, herri-mugimenduek indarra eta antolakuntza-maila nahikoa lortu dutela ordezkatu ahal izateko garai batean euskal nazionalismoak politikoki adierazteko izan zituen gabezia eta eragozpenen islada bezala sortu zen borroka armatua.

Oroz gain, esan beharra dago orain arte borrokariaren alde batetik proposatu den bide militarrek eta isolamendu sozialaren ahaleginak porrot sonatuak gertatu direla. ETAK

eta ETAREN ihardun armatuak analista politikoentzat kezkarri gertatu beharko lukeen aldeketasuna lortzen du oraindik ere.

Isolamendu sozialaren estrategia, berriz, emankor gertatu ohi zaio botereari bazterkeriara bultzatu nahi duen giza esparrua ahula eta antolatugabea denean; ez da hau, ordea, ETAREN inguruan dabilen sektorearen kasua.

Aitzitik, ETAREN borrokari balio sinboliko handia ematen dion sektore horren kasuan bezala, gizarte-sareetan sustraiturik eta inplikaturik dagoen esparru politiko hori isolatzeko ahaleginak kitatu ezinezko galera sozial eta politikoak ekar ditzake. Eta halaber etorkizuneko helburu eta jomuga politikoak begibistatik ezabatzea.

Posizioak, bandoak, aurkariak estigmatizatzen badira, manikeismo errazenera jotzen bada, etikaren gainetik ETARI erresistentziaren balio sinbolikoa emango dion sektorearen pentsabidea sendotu egin daiteke. Halaber, ETAREN ihardun militarren aurka egon daitekeen ezker abertzaleko beste sektore bati bere iritzia plazaratzeko bidea estutu egin dakioko, egoera artifizialki polarizatu batek ixiltasuna eskatzen baitio, orohar, oportunitate politikoa galdu duen disidentziari.

Gero eta nabariagotzen ari da, beraz, bortizkeria armatua elikatzen duen gatazka politikoa mahai baten inguruan baino ezin dela konpondu. Eta ezin dira aldebakarreko aurrebaldintzak jarri mahai horretara eseritzeko, mahaiak berak ezarriko baititu, eztabaida garatzen den heinean, arauak eta betelegeak.

Egia da ETaren iharduera militarrek inoiz izan duen legitimitatearen zati handia galdu duela aspaldion, Julio Iglesias ingeniariaren bahiketarekin batera eman den erantzun sozialak erakutsi duenez. Eta aurkakotasun hau botere-kontsonantzia batetik guztiz bideratua eta bultzatua izan dela esateak ez dio garrantzirik kentzen erantzun horri. Hego Euskal Herriko populazioaren zati handi batek ez dio egun zentzu zuzenik ikusten ETaren iharduera armatuari.

Honek ez du esan nahi, noski, ETaren eskakizun politikoak gehiengo baten eskakizun politikoekin adiskidetzen ez direnik. Ezta gehiengo honek, unean uneko sumindura ahazturik, bortizkeria armatuarentzat irtenbide negoziatuaren beharra ukatzen duenik ere. Areago esango genuke, Hego Euskal Herriko gehiengoa da ETaren izakera klabe politikotan irakurtzen duena eta, beraz, uste duena klabe politiko berorietan etorri behar duela konponbideak.

Ez al du merezi hainbeste hildako, etsipen, preso, erbesteratu eta oinaze sortu duen auzi honek imajinario-apur bat? Ezin al dugu ikasi beste herrialde batzuetan eman diren esperientzietatik? Noiz arte jasan behar dugu herritarrok klase politikoaren ankerkeria hori?

Mahainguru bat eskatu, beldurrik gabe, ausartaren balentria erabiliz eskuetan.

Helburu zuzen honetara jo baino lehen, ordea, eta ikuspegi operatibo batetik, Ajuria-Enea eta Iruñeako Itunak bultzatu zituzten alderdi nazionalistek saihestu egin beharko lituzkete eragozpenak, ETarekin

negoziazio politikoa eskatzen dutenekiko.

Beste aldetik ere, HBk areago hurbildu beharko luke joko politiko posibilstara, beharrezkoa den kritikotasunari uko egin gabe, nazionalismoaren konpaktazioak hala eskatzen duelako ezezik, bere balizko hazkuntza eta erreferentzi indarra sendotzeko bidea izan daitekeelako ere.

Honen harira, partaidetzak erakundeen egitura politikoa legez-kotzen duela dio **Txillardegik** (EGIN, 93-VI-18), berriro ere, jadanik ezaguna dugun iritzia berretsiz. Jarrera honen alde arrazoi funtsatuak egon daitezke, euskal erakundeen garapenak hainbeste botere-murrizketa jasaten dituenean eta demokratikoa deitu izan den sistema politikoak hainbeste lejitimazio-eskasia erakusten dituenean, Mendebalde guztian bezala, Euskal Herriarekiko.

Baina arrazoi hauetan oinarriturik hauteskundeetan parte hartzea bera ere zalantzan jarri beharko litzateke, agian logika gehiagoz, eta nazionalismoak botoen beharra ere badu, bere indarra, bere osasuna, bere proiektuaren zuzentasuna neurtzeko besterik ez bada.

Dena den, eskasia guztiekin ere, egun ditugun erakundeek eskaintzen dute tresnarik joko politikoa aurrera eraman ahal izateko, eta hauek erabat ukatzea eremu politiko hori alferrik galtzea izango litzateke, gure ustez. Bide alternatiboari eustekak HBren erresistentzi gaitasun izugarria erakutsi du, arerio politiko guztien indarrak bere aurka izan dituenean. Baina, bestalde, ez du balio izan koalizio honen oinarri soziala gehitzeko. Bide instituzionala eta alternatiboa partekatzen

saiatzearekin zer gerta litekeen ezin dugu esan, oraingoz.

Partaidetza kaltegarria izan daiteke, jakina, sistematikotasun antzu eta lar funtzionarial bilakatzen bada, azken batean, herrigintza ordezkatzeko helburua hartzen badu. Eta berau da, hain zuzen ere, ordezkaritza-sistema demokratikoak beti izan duen akatsik larriena.

Baina joera honen gabeziak kontutan hartuta ere, partaidetzarena gaitzerdia izango litzateke joko politikoan, baldin eta masa sozialaren botereari, behin eta berriro aipatu den herrigintzaren hazkuntza bermatu eta segurtatuko duten erresorte herritarrei tinko mantentzen jarraituko balitz.

Fronte abertzalearen ideia ere sortu da egunotan maiztasun handiz, egoeraren irakurketa larri baten ondorioz, euskal nazionalismoa aukera politiko bezala sendotu lezakeen estrategia antzo. Ez dirudi, dena den, egun ahalezkoa denik askok eskatu duten halako fronte abertzale bat bultzatzea. Agian, komenigarria ere ez da nazionalismoaren oinarri soziala gehiengo izateraino hedatzen ez den bitartean, behintzat. Alderdi politiko bakoitzak bere esparru, ikuspegi eta ekarpen propioak ditu nazionalismoaren barruan eta nekez uler daiteke, epe laburrera bederen eta, agian, epe luzera ere ez, elkarrenganatze osoa.

Baina honek ez du esan nahi itun eta adostasun puntaletako kultura bat osatzen hastea beharrezkoa ez denik, batez ere hainbatetan aipatu dugun herrigintza horren inguruan.

Erakundeen babesik gabe sortu diren ekimen kultural herritarrak ukatu ezin diren hein berean, badaude, esate baterako, alderdi politikoan ohizko ihardun tradizionaletatik kanpo sortu diren bestelako ekimen interesgarri batzuk, abertzale guztien babesa izan beharko luketenak, hots, **Euskaria** edo **Bai Independentziari** bezalako mugimenduak eta beste. Ahaztu gabe, borroka sektorialak aurrera eramateko jaio diren taldeak, hala bakearen eta elkartasunaren aldeko mugimenduak, nola ekologiaren aldekoak, emakumeen berdintasunaren aldekoak..., den-denek sentsibilitate bat erakusten baitute gizarte-arazo desberdinekiko, eta etikaren oihartzuna areagotuko duten sentsibilitate guztiak dira baliagarri naziogintzarako.

Arlo sinbolikoetako adostasunetatik hasiz gero, kultura hau ekimen politiko zehatzetara hedatuz joan baitaiteke, beranduago. Alabaina, alferra da alderantzizko bidea.

Zeren eta etorkizunak eskaintzen dizkigun aukerak kontraesankorrak eta erkaezinak baitira: egun espainol eta frantses bozkatzen eta sentitzen duen Euskal Herri hori irabazi ala ez gara gehiago izango Euskal Herri.

Mehatxu apokaliptikoaren irudian erori gabe, balioko ahal digu otso politikoaren hatzaparrak gure bizkar somatzeak guztiok dugun erantzunkizunari uko eta geroragokorik ez emateko.